

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Produktu batean pentsatzeko eskatu zigutenean txuriz geratu ginen. Izan ere, produktu hitza arrunta zein arrotza da. Milaka produktu erabiltzen ditugu gure egunerokoa eta bakoitzak eginkizun bat du eta behar bat asetzen du. Orduan zenbat ase gabeko egon behar zuten pentsatzen hasi giñen. Gure irakasleak eremua murriztu zigun, gure ingurura, arazoak gureak izanik produktu bat bilatzea errazagoa izango zelakoan eta oso urrun joan gabe konturatu ginen zenbat arazo ditugun eskolan bertan. Horrela jaio zen mahai digitalaren ideia.

Mahaiaren deskribapen azkar bat egitearren, euskarria eta oinarria metalezkoak izango dira. Kolore neutro bat jarri nahi izan diogu azkar ez nekatzeko. Horregatik girsak izango dira. Oinarri horren gainean pantaila bat izango da. Bukatzeko, alde batean boligrafo diitara gordetzko kajoitxo bat izango du.

Gure proiektua ikasleonek hainbat behar aseko dituen produktua asmatzea da. Hasteko, azken urteetan eztabaidan jartzen den gai bat da hezkuntza. Bertan berriro beharra dagoela dio jende askok eta, taldekoen ustetan, hala da. Era dinamikoago batean irakatsi behar zaie ikasleei eta mahai digitalak dira gure proposamena. Hauen bitartez helburu hau lor daiteke. Ikasleak arreta handiagoa jartzera eramaten ditu. Izan ere, punta-puntako teknologia erabiltzen da eta une oro adi egotea eskatzen du klasearen jarraipen egoki bat egiteko eta hori bultzatuko luke konturatu gabe. Gure ustez, ikasteko eta erakusteko erraztasuna ekartzen ditu mahai honek. Izan ere, gai bat azaltzeko garaian adibideak emateko gaitasuna du eta hauek gordetzeko aukera beraz ikasleek errazago barneratuko dituzte ikasi beharreko ideiak eta irakasleek argitu beharreko galdera gutxiago izango dituzte horrela erritmo azkarrago bat eraman ahal izango dute eta bete beharreko guztiak osatzera iristeko gai izango dira.

Aipatu beharrekoa da mahai hau papera izango balitz bezala erabili ahalko dela, hau da, bertan mahaira egokitua egongo den boligrafo moduko batekin idazteko aukera egongo da. Mahaiak bi aukera izango ditu: boligrafo aukera, non boligrafoa bakarrik detektatuko duen eta horrela besoak gainean jartzean ez da arazorik izango. Bestalde, aukera manuala izango du, non behatzekin ere pantaila manipulatu ahal izango den. Modu honetan kaligrafia lantzen jarraituko da baina mahai eskuz manipulatzeko aukera ere emango da.

Bestalde, koadernoak edo liburuak etxean ahaztearen arazoa alde batera utziko genuke. Ikasleek liburu guztiak bertan izango lituzkete deskargatuta eta koadernoak ez lirateke beharrezkoak izango. Mahai digitalean bertan aukera bat edukiko dute jaso nahi dituzten apunte guztiak apuntatzeko, bai eskuz idatzita bai eta teklatu digital baten bidez. Honi esker egunerokotasunean daramagun bizkarreko pisu hori

garraiatzea saihestuko genuke eta bizkarreko arazo asko desagertuko lirateke. Honekin batera proposamen ekologiko bat dela esan daiteke. Izan ere, paperaren erabileraren murrizketa bat ekarriko luke.

Gainontzeko ideietatik bereizten gaituena ideia berritzailea eta berria dela da. Informazioa manipulatzeko eta hezkuntza aurrera eramateko metodo berritzaile eta dinamikoago bat. Azken teknologiekin sortutako proiektu bat aurrera eramatea da gure helburua. Hezkuntza gure bizitzan funtsezkoa da eta ondo funtzionatuz gero prestigio handia lor dezaken produktua izan daiteke. Lan honen bitartez aurrerapen handia emango da arlo honetan eta gainera edozeinek erabili ahal izango duen baliabidea da. Proiektua aurrera joan ahala diseinu eta programa ezberdinak saltzen hastea pentsatu dugu eta honek espezializazioa eskainiko du.

Etorkizunean beste erakunde batzuetako eta enpresa mota batzuetako ateak irekitzea eginkizun posibleen artean ikusten dugu. Hala nola, jatetxeak, supermerkatuak edo bestelako edozein erakunde zein instituzio pribatu. Jatetxeetara bideratu ditugu elkarrizketa asko eta uste dugu arazo asko saihestuko lituzkeela . Batez ere zerbitzariak nabarituko lituzkete desberdintasunak. Jatetxearen sarreran mahai bat jarrita begirada azkar batez jakingo litzateke zenbat mahai dauden libre , zeintzuk erreserbatuta, zer ordura arte egongo diren beteta, zer mahaietara joan behar den bertakoa jasotzera...Horrela denboraren erabilpena askoz ere produktiboagoa izango litzake, jatetxean gertatzen dena askoz ere azkarrago jakinaraziko zelako. Aukera izango lukete komandak sukaldara pasatzeko eta horrela zerbitzarien buelta ugariak murrizteko bezeroei zerbitzu osatuago bat eskainiz. Izan ere, arazorik izan ez gero zerbitzariak libreago eta estres gutxiagoarekin egongo lirateke beraien gurak asetzeko. Bezeroentzat ere mesede bat da, izan ere , jatetxean sartu eta zerbitzariak gai izango lirateke esateko zenbateko denbora itxaron beharko duten esertzeko eta horrela erabaki ea pena merezi duen itxarotea edo beste jatetxe baten bila joatea.

Jatetxeei buruz edukitako elkarrizketa hau etorkizunerako utziko genukeen zerbait da eta horregatik zehaztu gabeko zerbait. Hala ere, ideia idatziz uztea beharrezkoa dela pentsatu dugu. Horrela, mahaiaren nondik norakoa hobeto ulertzen da. Mahaiaren arrakasta aurrera doan ahala aukera izango dugu espezializatzeko eta erakunde, enpresa edo instituzio bakoitzari behar duena emateko.